

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

Behin betiko onespena ematea Gasteizko ostalaritza establezimendu publikoetako eta horiekin parekatuetako terrazak arautzeko ordenantzaren aldaketari

2022ko otsailaren 18an egindako ohiko bilkuran, Gasteizko Udalbatzak hasierako onespena eman zion Gasteizko ostalaritza establezimendu publikoetako eta horiekin parekatuetako terrazak arautzeko ordenantzaren aldaketari.

Erabaki horren jendaurreko erakustaldian (2022ko martxoaren 4ko ALHAO, 27. zk.), erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ziren, eta eta udalbatzak 2022ko ekainaren 22ko ezohiko eta presako bilkuran ebatzi zituen.

Era berean, bilkura horretan behin betiko onespena eman zion Gasteizko ostalaritza-establezimendu publikoetako eta horiekin parekatuetako terrazak arautzeko ordenantzaren aldaketari.

Beraz, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitakoa betetze aldera, testu oso argitara ematen da, indarrean jar dadin.

Erabaki honen kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.b) eta 46.1 artikuluen ildotik, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik, egokitzen josten den beste edozein aurkezteko aukera gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko uztailaren 22an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE

**GASTEIZKO OSTALARITZA-ESTABLEZIMENDU PUBLIKOETAKO ETA
HORIEKIN PAREKATUETAKO TERRAZAK ARAUTZEKO ORDENANTZA**

Zioen adierazpena.

I. Kapitulua. Xedea, esparrua eta betebeharrak.

1. artikulua. Xedea.

2. artikulua. Definizioak.

3. artikulua. Esparrua.

4. artikulua. Betebeharrak.

II. Kapitulua. Terraza eta dagozkion altzariak instalatzeko baldintza teknikoak.

5. artikulua. Terrazak instalatzea baimendu daitekeen erabilera publikoko espazioak.

6. artikulua. Luze-zabalak.

7. artikulua. Erabilera publikoko espazioa okupatzeko baldintza teknikoak.

8. artikulua. Alboetako babesak.

9. artikulua. Aldi baterako itxitura duten terrazak.

10. artikulua. Estetika-arauak eta altzarien ezaugarriak.

11. artikulua. Berogailuak.

III. Kapitulua. Erregimen juridikoa.

12. artikulua. Udal-baimena.

13. artikulua. Eskualdatzea.

14. artikulua. Baimentzeko baldintzak.

15. artikulua. Funtzionamendu-ordutegia.

16. artikulua. Terrazak jartzeko baimena emateko prozedura.

17. artikulua. Terraza itxituradunak jartzeko baimena emateko prozedura.

18. artikulua. Indarraldia.

19. artikulua. Baimena iraungitzea.

20. artikulua. Bide publikoa okupatzeko tasa.

IV. Kapitulua. Legezketasuna lehengoratzeta eta zigortzeko erregimena.

21. artikulua. Udalaren esku-hartzea.

22. artikulua. Legezketasuna lehengoratzeta.

23. artikulua. Arau-haustek.

24. artikulua. Zigorrak.

25. artikulua. Zigorren mailaketa.

26. artikulua. Subjektu erantzuleak.

27. artikulua. Prozedura zigortzailea.

Xedapen iragankorrak.

Azken xedapena.

Zioen adierazpena

I. Udaltzaren 2012ko urriaren 29ko osoko bilkuran onetsi zen Gasteizko ostalaritza-establezimendu publikoetako eta horiekin parekatuetako terrazak arautzeko ordenantza.

Ordudanik igarotako denborak agerian utzi du, alde batetik, bertan ezarri zen erregulazioa egokia dela, oro har, eta, hain zuzen ere, tresna baliagarria izan da jabari publikoaren erabilera antolatzeko.

Nolanahi ere, zenbait alderdik eguneratu edo zirkunstantzia berrietara egokitzea eskatzen dutela nabarmendu da aldi horretan, hartara erabilera hori optimizatzeko eta espazio publikoen erabilera komun orokorrarekin eta bertan biltzen diren interes guztiekin harmonizatzeko.

Gainera, COVID-19aren krisialdi sanitarioaren ondorioz, herritarren ohiturak aldatu egin dira, eta terrazaren espazioak balio handiagoa bereganatu du, bai ostalarientzat, bai erabiltzaileentzat, gehien erabiltzen den eta bezero gehien erakartzen dituen espazioa izaki.

Ordenantza horren zenbait alderdi zuzendu eta hobetzeko asmoz, eta kalitate handiagoko horrelako ostalaritza-espazioak errazte aldera, hainbat neurri planteatzen dira, kasu askotan inguruko hirietan gertatzen denarekin bat datozenak.

II. Bestalde, ordenantza honen bitartez irisgarritasun unibertsalaren printzipioa gauzatu nahi da, esan nahi baita hainbat baldintza bete behar dituztela inguruneek, produktuek eta zerbitzuek pertsona guztientzat izan daitezkeen ulergarri, erabilgarri eta irisgarri, eta hartara bermatzearen pertsonak gizartean eta komunitatean erabat eta libreki garatzeko duten eskubidea eta ingurune guztiak pertsona guztientzat baliagarri direla. Horrenbestez, honako hauek aintzat hartu dira ordenantza honetan: Eusko Legebiltzarraren abenduaren 4ko 20/1997 Legea, irisgarritasuna sustatzeari buruzkoa; 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen, eta otsailaren 1eko CICI/561/2010 agindua, espazio publiko urbanizatuetan erabiltzeko bete beharreko irisgarritasun eta bereizkeria ezari buruzko baldintzen agiria garatzen duena.

III. Guztira 27 artikulua biltzen dituzten lau kapitulurik, bi xedapen iragankorrek eta azken xedapen batek osatzen dute ordenantza hau.

Arauen aplikazio-esparruari buruzko xedapen orokorrak biltzen dira lehen kapituluan, terrazak osatzeko balia daitezkeen elementuak zehazten, eta titulartasun pribatu eta erabilera publikoko lurzoruan kokatzen diren instalazioetara hedatzen ordenantza, terrazaren funtzionamenduak auzotarrei ekar diezazkiekeen eragozpenak kontrolatze aldera.

Kapitulu horretan, zoladuran ainguratutako edo kontrapisuekin finkatutako terrazak baimentzen dira, eta COVID-19aren garaian hartutako zenbait neurri berresten.

Bigarren kapituluan hiri-altzariak instalatzeko baldintza teknikoak arautzen dira, eta terrazaren kokalekua finkatzen, bide publikoaren lehenlehen helburua dena, oinezkoen joan-etorrietarako igarobide izatea, eta orobat irisgarritasuna, ondoko eraikinen erabilera eta zerbitzu publikoen funtzionamendua bermatzeko beharrezko diren mugak ezarriz, beti ere espazio horien erabilera orokorra eta herritarren interes orokorra nagusitu daitezkeen.

Kapitulu horretan finkatzen dira alboetako babesei buruzko arauak, aldi baterako itxiturak dituzten mahaitxo-terrazi buruzkoak, berogailuei dagozkienak, terrazak eta terraza-itxiturak urte osoan instalatzeko aukera ematen da eta altzariak bete beharreko arau estetikoak eta ez-ugarriak finkatzen dira, beren ingurunera behar bezala egokitu daitezkeen.

Gainera, gorago adierazi den arrazoiak dela medio, hau da, auzotarren atsedeen eta lasaitasunerako eskubidea babestu beharra dagoela eta, debekatu egiten da terrazetan edozein musika- edo irudi-tresneria instalatzea.

Hirugarren kapituluan, berriz, terrazak instalatzeko gaitzen duen erregimen juridikoa finkatzen da, zein ez baita administrazioaren tolerantzia hutsa baino. Lizentzien indarraldia 3 urtetik 4ra luzatzen da kapitulu horretan.

Jabari publikoa terrazak instalatzeko erabiltzea erabilera komun berezia da, eta, beraz, Ondasunen Araudiaren 77.1. artikuluan xedatuaren arabera, lizentziaren mende dago. Horrenbestez, esan bezala erabilera komun berezia izaki, jabari publikoa horretarako baliatzeko aukera dagokion lizentzia-erregimenaren bitartez emango da, eta inolaz ere ez da izango alde aurretiko eskubide bat, jurisprudentzia ugari baitago zentzu horretan, eta, era berean, lizentziak ez du mugarik gabeko eskubiderik aitortuko, baizik eta administrazio publikoen tolerantzia hutsean oinarritutako jarduera izango da, administrazioa izango baita, interes publikoa aintzat harturik, hau da, segurtasunari, ingurumenari kalte egiteari, irisgarritasunari nahiz hiri-estetikaren ingurukoei dagozkienak azterturik, dena delako lizentzia eman ala ez erabakiko duena.

Orobat ezartzen dira kapitulu horretan lizentzia eskuratzeko bete beharreko baldintzak, jarduera instalatzea posible izan dadin beharrezko diren izapideak argitu, zehaztu eta erraztu nahi izan baitira bertan. Halaber, interes publikoko zirkunstantziak egokitu izanaren ondorioz baimena bertan behera utzi ahal izango deneko egoerak ere zehazten dira.

Azkenik, IV. kapituluan, legezketasuna lehengoratzeko erregimena finkatzen da, baita zigortzeko erregimena ere, Tokiko Gobernuaren Eraberritzeko Neurri buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legean xedatutakoekin bat etorriz.

I. Kapituluua. Xedea, esparrua eta betebeharrak

1. artikulua. Xedea

1. Hauxe da ordenantza honen xedea: erabilera publikoko espazioak, edozein delarik ere horien titulartasuna, ostalaritza-establezimendu publikoen eta horiekin parekatuta dauden bestelakoen —kafe-, izozki-, txokolate- nahiz hortxata-dastalekuak—aldi baterako osagarri izango diren terrazak, itxitura dutenak nahiz itxiturarik gabeak jarriz okupatzeari dagozkionetan baliatuko den erregimen tekniko eta juridikoa finkatzea.

2. Parekatutzat joko dira izozkiak saltzeko merkataritza-establezimenduak, jarduera nagusia hori dutenak.

2. artikulua. Definizioak

1. Ondorio horietarako, hauek joko dira terrazatzat: mahaiz, aulki edo besaulkiz eta ostalaritza-establezimenduen edo halakoekin parekatuen jarduera modu osagarrian gauzatzeko aukera ematen duen bestelako edozein altzari mugikor eta desmuntagarri, hala nola eguzkitako, estalki, alboko babes, klimatizazio-tresna, loreontzi eta gisakoz edo publizitate-elementu edo antzekoz, osatutako instalazioak.

2. Itxitura finkoko mahaitxo-terrazak dira zoladuran ainguratuak edo kontrapisuz finkatuak, ostalaritza-establezimenduen edo halakoekin parekatuen jarduera modu osagarrian gauzatzeko aukera ematen dutenak.

3. Mahai batek eta binaka aurrez aurre jarritako lau aulkik osatuko dute mahai-aulki multzo arrunta. Mahaien gehieneko neurriak hauek izango dira: 60 cm-ko diametroa edo 80 cm luze bider 60 cm zabal; mahai-aulki multzo bakoitzaren okupazio-azalera teorikoa, berriz, 1,80 x 1,80 m².

3. artikulua. Esparrua

1. Erabilera publikoko espazio orori —kale, plaza, barruko patio, espazio libre nahiz berdegune— aplikatuko zaio ordenantza hau, edozein delarik ere haien titulartasuna. Indarrean dagoen hirigintza-planeamenduan ezarritakoaren arabera izango da erabilera publikoko izate hori.

2. Ez zaie aplikatuko, aldiz, Udalaren administrazio-emakida batean hartarako baimena jasoa dutelarik bide publikoa okupatzen duten ostalaritza-instalazioei edo horiekin parekatuei, ezta noizean behingo ospakizunak edo herri-festak direla eta —dena delako lizentzian finkatzen diren egunetan eta jarritako baldintzak betetzen direlarik— bide publikoan gauzatzen diren jardueri ere.

4. artikulua. Betebeharrak

1. Horrelako instalaziorik jartzekotan, udal-lizentzia eskuratu beharko da alde zuzenetik, ordenantza honetan arautzen den moduan.

2. Horrez gain, ikuskizun publikoen eta aisialdiko jardueren araudia bete beharko dute, baita ingurumenaren eta irisgarritasunaren alorreko araudiak ere, eta aplikagarri zaien sektore-araudiak ezartzen dituen gainerako arauak.

Bereziki, ostalaritza-establezimenduen edo halakoekin parekatuta dauden bestelakoen —kafe-, izozki-, txokolate- nahiz hortxata-dastalekuak— terraza guztiek irisgarri izan beharko dute, eta horien diseinuak eta kokapenak pertsona guztiei eman beharko die aukera halakoak erabiltzeko.

3. Ostalaritza-jarduera edo horrekin parekatutakoren bat burutzeko dena delako lizentzia, jakinarazpena edo indarrean dagoen araudian eskatzen den bestelako edozein agiri baliodunen jabe direnek bakarrik instalatu ahal izango dituzte terrazak.

4. Zein ostalaritza-establezimenduren edo horiekin parekatuen mende dauden, hartan burutzen den jarduera besterik ezingo da egin terrazetan, ezta hartan saltzen direnez besterik saldu ere.

II. Kapituluua. Terraza eta dagozkion altzariak instalatzeko baldintza teknikoak

5. artikulua. Terrazak instalatzea baimendu daitekeen erabilera publikoko espazioak

1. Ondoren adierazten diren kasuetan baimenduko da terrazak jartzea kale, plaza eta pasealekuetan eta erabilera publikoko gainerako espazioetan:

A) Erraz desmunta daitezkeen egitura estaliak jartzeko baimena. Alboetako babesek eta estalki iragazgaitz batek —tamaina handiko eguzkitakoa, ahal dela— osatuko dituzte egiturak. Hiri osora zabalduko da neurri hori, Erdi Aroko hirigunea barne. Baimenak lau urterako izango dira, Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Sailari aurretik eskatuta. Altzariak diseinu eta tratamendu kromatiko bateratua eduki beharko dute, ingururako egoki diren koloreekin. Udalak galdatu ahal izango du altzariak establezimendu guztien arteko estetika- eta berdintasun-ezaugarri jakin batzuetara egokitzea, inguruneako arkitektura-errealitatearekin bat etorri, ordenantzan adierazten den moduan.

Alboetako babes horiek mugikorak izan beharko dute, erraz kentzeko modukoak, eta egunero erretiratu beharko dira, mahai-aulkiekin batera. Gehieneko altuera 1,80 m izango da. Estalki iragazgaitza, eguzkitakoa ahal dela, lurretik 2,20 m geratuko da, eta alboetako babesen eta estalkiaren artean 0,70 cm-ko tarte ireki bat utziko da, aireztatzeko. Elementu horiek guztiak lokalaren barruan gorde beharko dira, edo horretarako egokitutako lekuan. Negozioek egiten duten eskabidean zehaztu beharko da leku hori.

Edonola ere, Udalaren baimena lortu ahal izateko irisgarritasunaren arloko araudia bete beharko da osagaiak jartzerakoan.

B) Mahaitxoak aparkalekuetan. Oinezkoen lehentasunezkoztat seinaleztatutako kaleetan —S-28 seinalea, bizitegi-kalea— mahaitxoak jartzen utziko da superetxadien barruan, fatxadaren aurrealdean. Trafikoak orduko 30 km-ko muga duen superetxadien barruko kaleetan ere jarri ahal dira mahaitxoak galtzadan, baldin eta espaloien zabalera beste aukerarik ematen ez badu. Kasu horretan, babesgarriak jarri beharko dira alboetan, mahaitxoak igarotzen diren ibilgailuetatik banantzeko.

C) Mahaitxoak arkupeetan. Establezimenduek jabeen baimena baldin badute baimenduko dira, erabilera publikoko espazio pribatuak direnez gero, edo, besterik gabe, espazio pribatuak. Horietan ere irisgarritasun-araudia bete beharko da. Arkupeetan jarritako mahaitxoan lerroa ordenantzak ahalbidetzen dituen bietako bat dela joko da.

D) Erdi Aroko hirigunean ere bi mahai-ilara jarri ahal izango dira fatxadei itsatsita —norberarenari eta ondokoenari, mugakideen baimena izanez gero, edo norberarenari eta aurrez aurreko lokalarenari, baimena izanez gero—, baldin eta, ordenantzaren ildotik, erdiko 4 m-ko pasabidea librea uzten bada. Elkarren aurrez aurreko espaloietan lokal bana egokituz bero, eta biek ere mahaitxoak jarri nahi leku berean, dena delako lerrokadurakoak izango du lehentasuna.

E) Ainguratu edo kontrapisuekin finkatutako terrazak iraunkorrak, 9. artikuluan definitzen direnak.

2. Inolaz ere ezingo da baimendu terrazak instalatzea honako espazio hauetan:

a) Oinezkoentzako pasabideen muturretako espaloi-guneetan, oztoporik gabe iristerik izan beharko baitu horietatik espaloietako oinezkoentzako igarobideetara.

b) Larrialdietako irteeren zabalera osoan.

c) Garraio publikoaren araututako geltokietan.

d) Lorategi-eremuetan, txorkoetan eta hala egiteak zuhaitzei edo beste edozein landareri kalte egiteko arriskua lekarkeen beste edozein espaziotan.

3. Nahikoa distantzia utzi beharko da hiri-altzari, trafiko-seinale eta argizutonetatik, horien zertarakoa behar bezala bermatua gera dadin eta orobat izan dadin mantentze-lanak egiteko aukera.

4. Ezingo da jarri oinezkoen nahiz ibilgailuen joan-etorriak oztopa litzakeen elementurik, ezta eraikin edo establezimenduetara sartzea galaraz lezakeenik ere.

5. Terrazak eta horien elementu osagarriak instalatzea debekatu ahal izango du eskumena duen udal-agintariak interes publikoak, zona jakin baten izaera historiko artistikoak edo bideetako segurtasunak hala eskatzen duelarik, elementu funtzionalen ikusgarritasunari kalte egiten diotelarik, obra publikoak egin beharra dagoelarik nahiz interes publikoko beste edozein zirkunstantzia egokitzen delarik.

6. Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea bete beharko da —Hiri-inguru- neen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartu zireneko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren bitartez garatua—, baita irisgarritasunaren alorreko gainerako arauak ere.

6. artikulua. Luze-zabalak

1. Ostalaritza-establezimenduen edo horiekin parekatuen fatxada bakoitzean gehienez ere bi mahai-aulki ilara jarri ahal izango dira.

2. Salbuespen gisa, bestelako kokalekurik baimendu ahal izango du Gasteizko Udalak interes publikoarekin zerikusia duten arrazoiek hala aholkatzen dutelarik, edo bi jarduera edo gehiagoren interesek bide publikoko espazio berean bat egiten dutelarik.

3. Ostalaritza-establezimenduaren edo horrekin parekatuaren aldameneko establezimenduen titularrek berriaz hala baimentzen dutelarik, horien fatxada ere okupatu ahal izango da, salbu eta bertan atari bat badago; izan ere, halakoetan ezingo da okupatu atalondoa.

7. artikulua. Erabilera publikoko espazioa okupatzeko baldintza teknikoak

1. Fatxadaren ondoan, oinezkoentzako ibilbide irisgarri bat bermatu beharko du instalazioak, oztoporik gabea —artikulu honetako 7.c paragrafoan xedatutakoa salbu—, oinezkoen segurtasuna bermatze aldera, irisgarritasuna sustatzeari eta eraikinetan traba arkitektonikoak kentzeari dagokien araudian xedatutakoaren ildotik.

2. Behar bezala justifikatutako salbuespen-egoerak direla medio terraza establezimenduaren fatxadaren ondoan kokatzea komeni bada, horren diseinuari eta zer-nolakoei buruzko txosten teknikoa egin ondoren baimendu ahal izango da.

3. Oinezkoentzako ibilbide irisgarriak oztoporik gabeko 2,20 m-ko altuera izan beharko du, luzera osoan.

4. Luzetarako aparkamenduetan, gutxienez 2,00 m zabaleko espazio horizontala bermatu beharko da espaloian, aparkamendu horietara iritsi ahal izateko.

5. Oinezkoentzako ibilbidea are gehiago zabaldu ahal izango da oinezkoen joan-etorri ugariak hala galdatzen dutelarik.

6. Ezingo da oztopatu etxe-atarietatik galtzadara iristea, ezta ibilgailuen sartu eta ateratzeko maniobrak zaildu ere, pasabideetan.

7. Erabilera publikoko espazioetan terrazak instalatzea muga hauen mende egongo da:

a) Kaleetan:

1. Ezingo da baimendu inolako terraza-altzaririk instalatzea espaloietan horien zabalera 2,40 m-tik beherakoa bada.

2. 2,40 m-tik gorako zabalera duten espaloietan, luzetarako aparkalekurik ez badago, mahai baxuak jarri ahal izango dira, edo altuera bikoitzeko garaiak, biulkirekin, espaloi-ertzean. Gutxienez 2,00 m-ko oinezkoentzako ibilbidea bermatu beharko du instalazioak, fatxadaren ondoan.

3. 3,10 m-tik gorako zabalera duten espaloietan, luzetarako aparkalekurik baldin badago, mahai baxuak jarri ahal izango dira, edo altuera bikoitzeko garaiak, biulkirekin, espaloi-ertzetik gutxienez 0,70 m-ra. Gutxienez 2,00 m-ko oinezkoentzako ibilbidea bermatu beharko du instalazioak, fatxadaren ondoan.

4. 3,80 m-tik gorako zabalera duten espaloietan, luzetarako aparkalekurik ez badago, mahai-aulkiak jarri ahal izango dira, espaloi-ertzean. Gutxienez 2 m-ko oinezkoentzako ibilbidea bermatu beharko du instalazioak, fatxadaren ondoan.

5. 4,50 m-tik gorako zabalera duten espaloietan, luzetarako aparkalekurik ez badago, mahai-aulkiak jarri ahal izango dira, espaloi-ertzetik gutxienez 0,80 m-ra. Gutxienez 2 m-ko oinezkoentzako ibilbidea utzi beharko du instalazioak, fatxadaren ondoan.

b) Oinezkoentzako esparru, plaza eta espazio berezietan:

1. Oinezkoentzako esparruak: oztoporik gabeko 4 m-ko oinezkoentzako ibilbide irisgarria uzten dutelarik egon beharko dute jarrita mahai-aulkiek, eta suhiltzaileen ibilgailu ofizialei, anbulantziei eta garbiketa publikoko zerbitzukoiei igarotzen uzteko moduan.

2. Oinezkoentzako plazak: kasu zehatz bakoitzaren zer-nolakoak aintzat harturik ebatziko dira eskabideak. Nolanahi ere, leku horiek zertarako diren hartarako erabili ahal izatea bermatu beharko da, kontuan izanik zenbat eskabide egiten diren, espazioaren ingurumen-ezaugarriak eta, halaber, lokal eta atarien une oroko irisgarritasuna.

3. Espazio berezietarako berariazko baldintzak ezarri ahal izango dira, inguruneko establezimendu guztiei tratamendu orokorra eta bateratua ematen zaielarik.

c) Erdi Aroko hirigunean:

Oztoporik gabeko 4 m-ko oinezkoentzako ibilbide irisgarria utzi beharko da mahai-aulkiak jartzen direlarik —bai oinplanoan, bai altueran—, kalearen erdiko ardatza erreferentziazat hartuta, eta Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren ibilgailu ofizialei, anbulantziei eta garbiketa publikoko zerbitzukoiei igarotzen uzteko moduan; hau da, bazterretako zerrenda libreetan kokatu beharko dira altzariak, fatxadei atxikita.

Ezinbestean mugatu beharko dira lurreraino iristen diren alboetako babesak jarriz, erraz detektatzerik izan dadin eta, hartara, ikusmen-urritasunen bat duten pertsonak arriskuan jar ditzakeen elementu edo egoera oro saihesterik.

Alboetako babesek mugatzen duten espazioaren barruan kokatuta egon beharko dute altzariak oro.

8. Altzariak kendu egin beharko dira bide publikotik 15. artikuluan zehazten den instalazioaren funtzionamendu-ordutegia bukatzen delarik.

8. artikulua. Alboetako babesak

1. Mahai-aulkien instalazioak hartzen duen esparrua mugatzerik izango da, gehienez ere hiru albotan babesak jarriz mugatu ere, eremua zedarritu eta ikusmen-urritasuna dutenei identifikatzeko aukera emate aldera.

2. Alboetako babes horiek mugikorrek izan beharko dute, erraz kentzeko modukoak, eta mahai-aulkiekin batera erretiratu beharko dira.

3. Inguruko baldintzetara egokitzeari dagokionez, udal-baimena beharko da alde zurretik.

4. Irisgarritasun-araudian ezarritako baldintza teknikoak bete beharko dituzte alboetako babesek.

9. artikulua. Itxitura finkoko terrazak, ainguratuak eta kontrapisuz finkatuak

1. Zoladuran ainguratutako edo kontrapisuekin finkatutako mahaitxoterrazak baimendu ahal izango ditu Gasteizko Udalak, zeinen funtzionamendu-aldia lizentziaren indarraldiarekin bat etorriko baita.

2. Itxiturak jartzeko, lurrian ainguratzea onartuko da, edo kontrapisuak jartzea, baita terrazei zerbitzua emate aldera bide publikoan zangak egitea ere. Monumentu historiko artistiko izendatuta dauden eremuetan, hala nola Erdi Aroko hirigunean, Espainia plazan, Andre Maria Zuriaren plazan edo Foru plazan, eta jende ugari biltzea dakarten udal-jarduerak nahiz jarduera pribatuak egin ohi diren bestelako lekuetan, kontrapisuekin finkatu beharko dira.

3. Baldintza hauen mende egongo dira itxiturak:

a) Zenbait kasutan, behar bezala arrazoitzen delarik, hiri-altzariak kendu ahal izango dira itxiturak jartzeko — behar diren distantziak errespetatu beharko dira horiek irisgarri izan daitezzen —.

b) Alboko gehienez 3 babes izango dituzte.

c) Alboko babesek zurrinak izan beharko dute, aukeran aluminio edo altzairu galvanizatu edo lakatu grisekoak (RAL 9006), angelu zuzeneko akaberarekin.

d) Alboko babesen altuera gehienez 2,20 m-koa izango da, eta babesaren azaleraren gutxienez ehuneko 50 gardena. Gainerakoak zeharrargia edo opakoa izan beharko du, gorago adierazitako kolorekoa.

e) Oztoporik gabeko gutxienez 2,20 m-ko altuera utziko du itxiturak espazio osoan.

f) Egonkortasuna bermatzeko gutxieneko neurriak eduki beharko dituzte soslaiek.

g) Alboko babesen egituraren material eta kolore berekoa izan beharko du egiturak.

h) Premiazko kasuetan egiturak ken daitezela galdatu ahal izango du Udalak, eta gehienez 48 orduko epean desmuntatu beharko dira horiek halakoetan.

4. Ainguratze eta kontrapisuen baldintzak.

a) Terrazetara argindarra eramateko baino ezingo dira egin zangak — terrazak itxituraz inguratuta egon ala ez—.

b) Zanga eta laginketen ordenantza bete beharko dute zangek. Ordenantza horretan jasota daude sakonera-mugak eta betelanei eta zoladura lehengoratzeari dagozkienak. Lehengo material bera baliatuz berritu beharko da espaloia, ez baita besterik onartuko; bereziki asfalto urtua bada. Espaloian lehendik dauden zerbitzuak aintzat hartu beharko dira, hondeaketa-lanek eragin litzaketan kalteak ekiditeko.

c) Kutxatila bana jarriko da zangaren hasieran eta bukaeran, instalazioa erraz erregistratzerik izan dadin eta establezimenduaren barruko instalazioarekin konektatzeko balio dezaten. 40 cm x 40 cm-koak izango dira kutxatilak (barruko neurriak); sakonera, berriz, zangarenaren parekoa. Estalkiaren gutxieneko erresistentzia C-250 izango da. Estalkien identifikazioa udal-zerbitzuei kontsultatu beharko zaie.

d) Debekatuta egongo da instalazioa fatxadaren gainetik jartzea.

e) Behe Tentsioko Araudia bete beharko dute, bertan zehazten baitira erabili beharreko sekzioak; gutxieneko sakonera, berriz, hodiaren goiko sortzailea 40 cm sakon geratzen dela bermatzeko adinakoa izango da.

f) Terraza-lizentziaren eskabideari zangak egiteko eskabidea eransten zaiolarik, biak batera tramitatuko dira.

10. artikulua. Estetika-arauak eta altzarien ezaugarriak

1. Jarri nahi diren mahai eta aulki ereduak beren zereginetarako egoki diren ezaugarriak izan beharko dituzte; pilagarriak izan beharko dute — egunero erretiratzea errazte aldera—, material gogorrekoak, erraz garbitzeko modukoak eta kalitate onekoak.

2. Mahai eta aulkien hanka-muturrek gomaz hornituta egon beharko dute, arrastaka eramatean ateratzen duten zarata moteltzeko.

3. Altzariak diseinu eta tratamendu kromatiko bateratua eduki beharko dute, ingururako egoki diren koloreekin. Udalak galdatu ahal izango du altzariak establezimendu guztien arteko estetika- eta berdintasun-ezaugarri jakin batzuetara egokitzea, ingurune arkitektura errealtatearekin bat etorritz.

4. Mahaiak, aulkiak eta behin-behineko estalkiak nahiz baimentzen diren gainerako elementuak homologatzeko berariazko arauak ezarri ahal izango dira. Eguzkitako gisako itzalkinak jarri ahal izango dira, erdian edo alboan dutelarik euskarria, baldin eta mahaitxoak jartzeko baimendutako neurriak gaingitzen ez badituzte.

5. Eramangarriak izan beharko dute eguzkitakoek, eta, beraz, egitura arina eta tolesgarria izan beharko dute. Zoladuran ainguratuta jarri ahal izango dira. Ainguraketek ezingo dute gainditu eguzkitakoaren oinarriaren perimetroa; ez dute oztopo izan behar, zoladuran.

Ezingo dira eraikinaren fatxadan ainguratu, ezta bide publikoko beste inongo elementutan ere. Barruko aldean kontrapisuak jartzea ere baimentzen da —lore-ontziak edo antzekoek—, nahikoa pisu dutelarik elementuaren egonkortasuna bermatzeko. Eguzkitako eta itzalkinak babesteko elementuak ehunezkoa izan beharko du, olana edo antzekoa.

Elementu horien altuera ezingo da izan 2,20 m-tik beherakoa, ezta 3,50 m-tik gorakoa ere; alboko fatxadako edozein baoren beheko ertza baino 1,50 m beherago geratu beharko dute. Altzari guztiak egunero erretiratu beharko dira, jarduera bukatzean.

6. Estetika- eta garbitasun-arrazoiengatik, ez da baimenduko jardueri dagozkien produktuak, materialak eta hondakinak terrazen ondoan gorde edo pilatzea.

7. Ezingo da jarri bide publikoan salmenta makina automatikorik, ezta jolas makinarik edo haurrentzakorik.

8. Galarazita egongo da terrazetan inongo musika-tresneriarik jartzea, baita bozgorailurik, telebistarik edo bestelako irudi- eta soinu-tresnarik.

11. artikulua. Argiztapen-instalazioak eta estufak

1. Argiztapena instalatu ahal izango da terrazan, aldez aurretik baimena ematen delarik —terraza jartzeko lizentziarekin batera eskatu ahal izango da, edo gerora—. Arau hauek bete beharko dira:

a) Lurpeko eroanbideak baliatzen direlarik baino ez dira baimenduko horrelako instalazioak. Instalazio-proiektu baimendua beharko da, zein udal-teknikariak baloratuko baitute. Aukeran, batera osagarrien edo eguzki-plaken bitartez elikatutako argiztapena instalatuko da, indarrean dagoen araudiaren arabera.

b) Behe-tentsiorako erregelamendu elektroteknikoa onetsi zeneko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko dute instalazioek. Instalazio-eskabide orori Arabako industria-administrazioaren lurraldeordezkaritzan zigitatutako behe-tentsioko instalazio elektrikoaren ziurtagiria edo proiektu teknikoa erantsi beharko zaio.

c) Argiztapen-mailak ezingo du izan kalean dagoena halako bitik gorakoa.

d) Establezimenduen beraren egiturei lotu beharko zaie —inoiz ere ez zuhaitzei edo hiri-altzariei, hala nola bankuei, farolei eta seinaleei—. Halaber, segurtasun-elementuak izan beharko dituzte egitura horiek, bai mekanikoa, bai elektrikoa.

e) Instalatzen diren aparatuek itxiak izan beharko dute, IP-65 babes-mailan sailkatuak, UNE 20324 arauaren arabera. Establezimenduen koadro nagusira konektatuta egon beharko dute, zuzeneko eta zeharkako kontaktuen kontrako babes-sistema bat eduki, eta, gainera, pizteko eta itzaltzeko sistema bat.

2. Terraza jartzeko baimena duten ostalaritza-establezimenduetan edo horiekin parekatuetan beroa edo hotza sortzeko elementuak —berogailuak— jartzea baimenduko da, baldintza hauek betetzen direlarik:

a) Modelo homologatuak baino ezingo dira instalatu. Elikatze-iturri iraunkorra —alternatiboa eta berriztagarria— izan beharko dute, atmosferara emisiorik botatzen ez duena. Ez du tximinia erantsirik beharko kea edo lurrinak kanporatzeko.

Iraunkorrak ez diren instalazioak direnez gero, egunero gordeko dira berogailuak, establezimenduen irekiera-ordutegitik kanpo eta establezimendua funtzionatzen ari ez den guztietan.

Hortaz, erraz desmuntatzeko modukoak izan beharko dute, eramangarriak; ezingo dira zoladuran ainguratu, eta halako diseinua izan beharko dute —neurriak, pisua— non establezimenduen beraren bitartekoak baliatuz lekualdatzeko aukera eman beharko baitute.

b) Ez lizentziak berritzean, ez berririk ematean, ez da onartuko gasberogailuak erabiltzea, iturri iraunkorra ez denez gero.

c) Mahaitxoentzat finkatutako muga barruan jarri beharko dira beti.

3. Berotu, hoztu edo girotzeko izango dira elementu horiek.

4. Berogailuak jartzekotan, dokumentazio hau aurkeztu behar dute interesdunek:

a) Berogailuaren ezaugarri fisiko, tekniko eta estetikoak.

b) Terrazaren planoak, berogailuak non jarriko diren adierazten delarik.

c) Berogailuaren kalitate-bermea eta Europar Batasunaren homologazioziurtagiria.

d) Aseguru-enpresa batekin egindako kontratua, non terrazan berogailuak instalatzea aurreikusten den.

e) Funtzionamendu-aldia.

5. Dokumentazioa egiaztatu ondoren, eta ingurunea nahiz bide publikoari eragiten dioten zer-nolakoak aintzat harturik, txosten tekniko bat egingo da, non finkatuko baitira berogailuak jartzeko baimena emateko betebeharrak, edo hori ukatzeko arrazoiak azalduko.

III. Kapituluua. Erregimen juridikoa

12. artikulua. Udal-baimena

1. Terrazak eta osagarriak instalatzekotan, itxiturarekin nahiz itxiturarik gabe dela ere, udal-lizentzia eskuratu beharko da alde aurretik. Erabilera publikoko espazioa okupatzeko administrazio-baimena da, berezia, ahalmenekoa, administrazioak interes publikoa aintzat harturik ematea erabakitzen duena, esan nahi baita segurtasunari, ingurumenari kalterik ez egiteari edo hiri estetikaren beste alderdi batzuei dagozkienak kontuan izanik eta baldintza jakin batzuekin.

2. Lurzorua baimendutako horretarako erabiltzea galarazten duten interes publikoko zirkuntantziak egokitzen direlarik, hala nola obrak, ospakizun publikoak, larrialdi-egoerak edo beste, lizentzia indarrrik gabe geratuko da harik eta horiek desagertu arte, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

3. Interes publikoagatik eta behar bezala arrazoiturik, edonoiz utzi ahal izango dira bertan behera lizentziak, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, aplikatu beharreko araudiren batekin bateragarri ez badira —baita lizentzia emanez geroztik onetsia izanik ere—, jabari publikoari kalte egiten badiote, interes publiko handiagoko jardueretarako erabiltzea galarazten badute edo erabilera orokorrari kalte egiten badiote.

Lizentziaren titularra izango da erantzule instalazioak eta haren funtzionamenduak bai administrazioari bai besteri sortzen dizkieten kalteak direla eta.

13. artikulua. Eskualdatzea

1. Terrazak instalatzeko lizentzia zein ostalaritza-establezimenduri dagokion, hura irekitzeko lizentziaren edo jarduera bideratzeko indarrean dagoen araudian eskatzen den beste edozein gaitze-agiriren titulartasunaren aldakuntzaren berri ematen delarik eskualdatuko da, salbu eta titular berriak berariaz uko egiten diolarik.

2. Terrazak instalatu eta funtzionatzeko lizentziak ezingo dira bereiz errentan eman edo laga.

14. artikulua. Lizentziaren baldintzak

1. Lizentzia jabetza-eskubidea salbu delarik eta inoren eskubideei kalterik ez eragitekotan ematen dela ulertuko da.

2. Lizentziaren titularra behartuta egongo da instalazioaren elementuek bide publikoan sortzen dituzten kalteak konpontzera.

3. Establezimendu nagusiaren erantzukizun zibilerako eta suteen kontrako aseguruia eduki beharko du lizentziaren titularrak, eta horren estaldura erabilera publikoko espazioetan jarritako terrazen funtzionamenduak lekartzakeen arriskueta zabaldu.

4. Ezingo da saldu bere ezaugarri organoleptikoak direla eta inguruko etxebizitzetakoei enbarazu egingo liekeen usain txarrik ekarriko lukeen jakirik.

5. Garbitasun-, segurtasun- eta apaindura-egoera egokian eduki beharko da, une oro, okupatutako espazioa, baita bertan jarritako instalazioak eta altzariak ere. Hori beteko duela ziurtatzeko, eta jardueraren ondorioz bide publikoan eta bertako instalazioetan sor litezkeen kalteen aurrean erantzuteko, alde aurretik bermea jarri beharko du jardueraren titularrak, urtebeteko tasa adinakoa, kontratazio-araudian finkatutako moduetako edozein baliaturik.

6. Terrazen garbiketa orokorra establezimendua itxi ondoren egin beharko da, behar diren higiene-baldintzei une oro eutsi beharko bazaie ere.

7. Establezimenduaren titularra behartuta egongo da altzari guztiak, eguzkioihala salbu, erabilera publikoko espazioetatik kentzera. Lokal pribatu batean gorde beharko dira, giltzapean, eguna bukatzean, eta okupatutako espazioa erabat garbi utzi beharko da. Funtzionamendu-aldian, hau da, jarduera itxi arte, bai egongo da baimenduta altzariak erabilera publikoko espazioan bertan gordetzea.

8. Baimenduta egongo da terrazetan instalatutako hiri-altzarietan publizitatea jartzea, baldin eta gehienez 0,20 x 0,20 m hartzen badu. Orobat, baimenduta egongo da establezimenduaren izena edo logotipoa jartzea, gehienez 0,60 x 0,20 m-ko zerrenda bat hartzen duelarik.

9. Izozkiak saltzeko diren merkataritza-establezimenduek jendearentzat zabalik egon beharko duten komunak izan beharko dituzte, hirigintza-plangintzan merkataritza-erabilerarako ezarritakoaren arabera.

15. artikulua. Funtzionamendu-ordutegia

1. 8:00etan hasi ahal izango da terrazak jartzen, 8:30az geroztik funtzionatzen has daitezen, 23:00ak arte. Ostiraletan, larunbatetan eta jai-bezperetan ixteko ordua ordubete geroratu da. Ekainaren 1.etik irailaren 30era bitartean ixteko ordu hori 30 minutuz geroratu ahal izango da.

2. Andre Maria Zuriaren jaietan bi orduz geroratu ahal izango da ixteko ordua. Jai horietako ostiral, larunbat eta jai-bezperetan 1:30ak arte geroratu da ixteko ordua.

3. Ordutegi horiek ezingo dituzte urratu, inolaz ere, autonomia-erkidegoko araudian ostalaritza-establezimenduak ixteko ordutegiari dagokionez ezarritakoak.

4. Oinezkoentzako eremu eta kaleetan instalazioaren funtzionamenduordutegia ez da hasiko zamalanak egiteko ordutegia bukatzen denetik ordu erdi igaro arte.

5. Mahai-aulkien funtzionamendu-ordutegia bukatzen denetik gehienez ere 30 minutuko tartean hustu beharko dira instalazio horiek. Mahai-aulkiak kendu eta garbiketa egiteko lanek ezingo dute 30 minututik gora iraun, instalazioa husteko denbora bukatzen denetik, eta zarata eta eragozpenik sortu gabe egin beharko dira.

16. artikulua. Terrazak jartzeko baimena emateko prozedura

1. Terrazak instalatzeko egiten diren lizentzia-eskabideei, baita lehendik emandakoak aldatzeko egiten direnei ere, agiri hauek erantsi beharko zaizkie:

a) Jardueraren titularraren izen-deiturak eta nortasun-agiria edo IFZ.

b) Kokalekua eta establezimenduaren izen komertziala.

c) Indarrean dagoen araudian jarduera burutu ahal izateko eskatzen den irekitzeko lizentzia edo, bestela, jakinarazpena edo gaitze-agiria. Ofizioz begiratuko da dena delakoak lizentzia hori baduen.

d) Eskatzailea Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda egotea.

e) Instalatzea aurreikusten den mahai-aulkien kopurua eta elementu osagarrien zerrenda, kopurua eta altzari-ereduak berariaz adierazten direlarik.

f) Kokalekuaren azalpena, planoan jaso, eta instalatu nahi diren elementuek okupatuko duten luze-zabalaren eta horien kokapenaren xehetasunak, kotatuta.

g) Aldameneko establezimenduen titularren berariazko baimena, baldin eta jardueraren fatxada baino gehiago okupatuko bada.

h) Establezimenduaren erantzukizun zibilerako eta suteen kontrako asegurusaria ordainduta dagoela egiaztatzen duen agiria.

i) Jardueraren funtzionamendu-aldia.

2. Behar izanez gero, hamar eguneko epean akatsak zuzendu edo arauzko dokumentazioa osatzeko eskakizuna egingo diote udal-zerbitzuek interesdunari, orobat jakinaraziz hala egin ezean eskabidea bertan behera utzizat joko dela eta besterik gabe artxibatuko, ebazpena eman ondoren, Herri Administrazioen Araudi Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 42. eta 71. artikuluen ildotik.

3. Dokumentazioa osatu ondoren, txosten teknikoa egingo da, eta bertan adieraziko lizentzia ematea bidezko den, eta, hala bada, zer baldintza zehatz bete beharko diren, edo ukatu beharra dagoen, eta, hala bada, zein arrazoirengatik.

4. Aldeko txosten teknikoa oinarritzat harturik, bide publikoa terraza instalatuz okupatzeko lizentziaren gainean ebatziko du udal-agintaritzak, eta bidenabar, behar izanez gero, proiektatutako instalazioak bete beharko dituen baldintzak edo neurri zuzentzaileak adieraziko.

5. Hilabeteko epean berariazko ebazpenik ez izateak ezespren-ondorioak izango ditu.

6. Zein espaziotarako baimentzen den, horren neurriak jaso beharko ditu lizentziak, eta, era berean, funtzionamendu-aldia, ingurumenaren alorreko zein mugetara moldatu beharko den instalazioa, guztira zenbat mahai eta aulki jarri ahal izango diren, eta zer altzari osagarri, kopurua eta ezaugarriak zehazturik.

7. Lizentziaren agiria edo kopia eta xehetasun-planoa kanpotik ikusteko moduko leku batean jarri beharko dira establezimenduan, eta Udalaren ikuskaritza-zerbitzuak eskuragarri izan beharko ditu.

17. artikulua. Terraza itxituradunak jartzeko baimena emateko prozedura

1. Terraza itxituradunak direnean, ostalaritza-establezimenduen edo halakoekin parekatuaren titularrak instalazioaren proiektu teknikoa aurkeztu beharko du, eskumena duen profesional batek sinatuta, hauek barne direla:

a) Txosten teknikoa, xehetasun hauek biltzen dituena:

1. Hartuko den luze-zabala eta itxituraren barruan instalatuko diren elementuen ezaugarriak.

2. Jardueraren funtzionamendua, aurreikusitako instalazioen ezaugarri teknikoak zehazten direlarik: instalazio elektrikoa, klimatizazioa, suteen prebentzioa, isolamendu akustikoa, irisgarritasun legearen eta jendaurreko ikuskizunen legearen ingurukoak eta abar.

3. 1:100 eskalako planoak, non argi eta garbi adierazi beharko baitira neurriak, sekzioak, oinplanoak eta alboetako, aurreko nahiz atzeko altxaerak.

4. Muntatzeko aurreikusten diren obrak.

b) Teknikari eskudunak emandako ziurtagiria, non adierazten den egitura aski egonkorra dela eta betetzen dituela suteen prebentzioari eta itzaltzeari, lekuak husteari eta sutearekiko erreakzioari dagozkien betebeharrak.

c) Instalazioaren aurrekontua.

d) Erantzukizun zibilaren eta suteen aseguruaren poliza, burutzen den ostalaritza-jardueraren ondoriozko edonolako arriskuak oro estaltzen dituena, ordaindua dagoela egiaztatzen duen agiria.

e) Jardueraren funtzionamendu-aldia.

2. Dokumentazioa aurkeztu ondoren txosten teknikoa egingo da. Hainbat kontu aztertuko dira bertan: ingurunearekiko egokitasuna, ostalaritza establezimenduen azalera erabilgarria, kotatutako espazio publikoaren edukiera, dauden zerbitzu publikoak, oinezkoen joan-etorrien intentsitatea eta merkataritza-ekipamenduen maila, eta ororen buruan lizentzia eman ala ez ebatziko du udal-agintaritzak.

3. Proiektu teknikoa aurkeztu aurretik terraza jartzeko aukerari buruzko kontsulta egin ahal izango da. Horretarako, instalazioa deskribatzen duen krokisa erantsi beharko da, eta honako hauek adierazi: okupatuko den espazioaren neurriak, oinplanoa eta altxaera, eragindako espazio publikoarekiko erlazioa, zerbitzuak eta jarri nahi den instalazioaren infografia edo hura azaltzen duen argazki-muntaia. Udalaren erantzuna, instalazioa baimentzeko aukeraren ingurukoak, ostalaritza-establezimenduen edo halakoekin parekatuaren titularrari jakinaraziko zaio.

18. artikulua. Indarraldia

1. Eskatzen den urterako emango da baimena, egoki bada, eta besterik gabe joko da luzatuzat —gehienez ere lau urte arte, salbu eta interes publikoaren arloko zirkunstantziaren batek besterik badakar berekin edo lizentziaren baldintzetan aldakuntzarik gertatzen bada—, aldeetakoren batek, dela administrazioak, dela titularrak edo aldameneko establezimenduko titularrak —baldin eta jardueran fatxada baino gehiago hartzen bada—, kontrako asmorik jakinarazten ez badu, gutxienez ere luzapen-aldia hasi baino 15 egun lehenago.

Baimena amaitu baino 6 hilabete lehenago, Gasteizko Udalak epea gairiditzekoa dela jakinaraziko dio interesdunari.

Jardueraren fatxada baino eremu zabalagoa hartzen delarik, aldameneko jardueraren titularrak lizentzia bertan behera utzi ahal izango du, luzapenaren hasieraren aurretik edo titular-tasuna aldatzen bada.

Luzapenaren kontra agertuko da administrazioa kasu hauetan:

a) Terrazaren jarduera nagusiaren funtzionamenduak sortutako kalte edo eragozpenen ondorioz alde aurretik prozedura arrazoiturik abiatu bada.

b) Lizentziako baldintzak edo ordenantza bera ez direla bete frogatzen bada. Tasa ordaindu ez bada.

c) Baimentzekoa den aldian lizentzia eman zeneko errealitate fisikoa aldaraziko duten jarduera publikoak gauzatzea aurreikusita badago.

19. artikulua. Baimena iraungitzea

Kasu hauetan iraungiko da lizentzia:

1. Bide publikoa okupatzeko lizentziaren titularrak uko egiten badio.

2. Udalak baliogabetzen badu:

a) Interes publikoko arrazoiengatik, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

b) Lizentziako baldintzak, ordenantzan ezarritako arauak nahiz aplikagarri den bestelako edozein arau ez betetzearen ondorioz.

3. Bide publikoa okupatzeko tasa borondatezko epean ordaindu ez bada.

20. artikulua. Bide publikoa okupatzeko tasa

Lizentziaren titularrak bide publikoa okupatzeko tasa ordaindu beharko dio Udalari, onartzen den ordenantza fiskalean jasotakoaren arabera.

IV. Kapituluak. Legezkotasuna lehengoratzea eta zigortzeko erregimena

21. artikulua. Udalaren esku-hartzea

Udaltzaingoari dagozkio ordenantza honetan xedatutakoa betetzen dela egiaztatzeko ikuskaritza eta kontrol zereginak.

22. artikulua. Legezkotasuna lehengoratzea

1. Prozedura zigortzailearen ondorio diren administrazio-erantzukizunak bateragarri izango dira arau-hausleari eraldatu duen egoera lehengora bihurtzeko eskatzearekin, baita sortutako kalte-galerak ordainaraztearekin ere.

2. Atzematen delarik terrazak lizentzia eskuratu gabe jarri direla edo ez direla errespetatu emandako lizentzian zehaztutako baldintzak, horiek berehalakoan kendu edo egokitze eskatuko zaio establezimenduaren titularrari edo arduradunari. Eskakizun hori aintzat hartzen ez bada, behar den laguntza eskatuko du udal-ikuskaritzak, terrazak berehalakoan kentzeko.

3. Arau-hauslearen kontura likidatuko dira terrazak kentzeak sortzen dituen gastuak.

4. Lizentzian ageri den epea bukatzen delarik terrazek bertan badiraute, udallizentziarik gabe daudenenaren parekotzat joko da egoera hori.

23. artikulua. Arau-haustek

Ordenantza honen kontrako arau-haustek izango dira bertan xedatutakoaren kontrako ekintzak nahiz ez-egiteak.

Honela sailkatzen dira arau-haustek: arinak, larriak eta oso larriak.

1. Arau-hauste arinak:

- a) Instalazioa jarri eta kentzeko ordutegia urratzea, ordu erditik behera.
- b) Mahai-aulkia bat lizentziarik gabe jartzea.
- c) Instalazioaren eta inguruaren apaindura edo garbiketarik eza.
- d) Produktuak, ontziak edo hondakinak gorde edo pilatzea terraza-eremuan edo bide publiko beste edozein espaziotan.
- e) Lizentzia-agiria eta xehetasun-planoa ongi ikusteko moduan jarrita ez edukitzea.
- f) Mahaiak, aulkiak edo elementu osagarriak baimendutako eremutik kanpo jartzea.
- g) Ordenantza honetan aurreikusitako beste edozein betebeharrak ez betetzea, baldin eta arau-hauste larria edo oso larria ez bada.

2. Arau-hauste larriak:

- a) Ixteko ordutegia urratzea, ordu erditik gora eta ordubetetik behera.
- b) Bi mahai-aulki multzo baimenik gabe jartzea, edo mugei buruzko bestelako betebeharren bat ez betetzea.
- c) Mahai-aulkiak kentzerakoan auzokoei enbarazu egiten dieten zaratak sortzea.
- d) Behar baino eremu handiagoa hartu eta espaloiko zabalera librea edo oinezkoentzako igarobidea ehuneko 10etik ehuneko 25era bitartean murriztea.
- e) Mugei buruzko bestelako betebeharrak ez betetzea, horrek berekin badakar traba egitea atarietara sartzeko edo bertatik ateratzeko, edo merkataritzalokaletara, ibilgailuen pasabideetara, zerbitzu publikoen geltokietara edo hiriko bestelako elementuren batera iristeko, hala nola suteen kontrako hidranteetara eta bestetara, baita ordenantza honetan ezarritako irisgarritasunaren alorreko betebeharrak ez betetzea ere.
- f) Galarazita dauden edo behar den lizentzia ez duten jarduerak burutzea terrazan, hala nola irudiak nahiz soinua erreproduzitu edo aplikafikatzeko aparatu edo tresneria jartzea edo baimendu gabeko ikuskizun edo emanaldiak eskaintzea, non eta ez den arau-hauste oso larritzat jotzeko modukoa.
- g) Baimendutakoez bestelako altzariak baliatzea terrazetan, edo baimendutakoak baino gehiago, edo ordenantza honetan xedatutakoa betetzen ez duen publizitatea jartzea.
- h) Funtzionamendu-ordutegia bukatzean terrazetako altzariak kentzeko obligazioa ez betetzea.
- i) Altzariak espazio publikoan pilatzea.
- j) Ordenantza honetan eskatzen den erantzukizun zibilerako eta suteen kontrako aseguruia ez edukitzea.
- k) Lizentzia-agiria edo kopia eta xehetasun-planoa udaleko ikuskaritza zerbitzuari aurkezteari uko egitea.
- l) Urtebeteko epearen barruan bi arau-hauste arin baino gehiago egitea.

3. Arau-hauste oso larriak:

- a) Instalazioa jarri eta kentzeko ordutegia urratzea, ordubetik gora.
- b) Hiru edo gehiago mahai-aulki lizentziarik gabe jartzea.
- c) Terrazak lizentziarik gabe instalatzea, edo baimendutako aldiak kanpo.
- d) Behar baino eremu handiagoa hartu eta espaloiko zabalera librea edo oinezkoentzako igarobidea ehuneko 25etik gora murriztea.
- e) Elkarbizitzaren nahasmendu nabarmena sortzea, larriki, unetik bertatik eta zuzenean eragiten zaiolarik beste pertsona batzuen lasaitasunari nahiz legezko eskubideak baliatzeko aukerari, aplikagarri diren araudien arabera beste jarduera batzuei edo osasungarritasun edo apaindura publikoari.
- f) Zerbitzu publiko baten erabilera edo funtzionamendua galarazi edo eragozten duten ekintzak, edo haren ekipamendu, azpiegitura edo instalazioen hondamen larria dakartenak.
- g) Urtebeteko epearen barruan bi arau-hauste larri baino gehiago egitea.

24. artikulua. Zigorrak

Ordenantza honetan finkatzen diren arau-hausteak egiteak honako zigor hauek ordaindu beharra ekarriko du berekin:

1. Arau-hauste arinak 750 euro arteko isunarekin zigortuko dira.
2. Arau-hauste larriak 751 eurotik 1.500era arteko isuna jarriz zigortuko dira.
3. Arau-hauste oso larriak 1.501 eurotik 3.000ra arteko isuna jarriz zigortuko dira.

25. artikulua. Zigorren mailaketa

Irizpide hauek hartuko dira aintzat zigorrak mailakatzeko:

1. Nahita edo behin baino gehiagotan egin izana.
2. Zer-nolako kalteak eragin diren.
3. Antzeko arau-haustea berriro egitea, ebazpen irmoz hala egin dela adierazi bada.
4. Arau-haustea eginez lortutako legez kanpoko mozkina.

26. artikulua. Subjektu erantzuleak

Terrazak zein ostalaritza-establezimenduren edo horiekin parekatuaren osagarri diren, horien titular diren pertsona fisiko edo juridikoak izango dira arauhausteen erantzuleak.

27. artikulua. Prozedura zigortzailea

Ordenantza honetan aurreikusitako zigorrak jartzeko, aldez aurretik prozedura zigortzarilea tramitatu beharko da, zigortzeko prozedurari buruzko legedi orokorrean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen zigortze ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoaren ildotik.

Egokitu litekeen ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko beharrezko diren behin-behineko neurriak hartu ahal izango dira dosierra abiarazteko erabakian.

Xedapen iragankorrak

Lehena:

Ordenantza hau indarrean jartzen denez geroztik terrazak instalatzeko lizentzia eskuratzeko aurkeztzen diren eskabideak oro bertan jasotakoaren arabera izapidetuko dira.

Bigarrena:

Ordenantza hau indarrean jarri aurretik baimendutako instalazioen ezaugarriak bertan ezarritakora egokitu beharko dira, indarrean jartzen den datatik bederatzi hilabete igaro aurretik.

Azken Xedapena

ALHAOn osorik argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau.